

# 2018ko LEHEN SEIHILEKOKO EMAITZEN AURKEZPENA

2018ko uztailak 25

# LABURPENA

Enpresaren balantzeak indarra erakutsi duen testuinguruan, jardueraren eta irabazien mailak areagotu egin dira

*(milioi eurotan)*

| | 2018 1.S | 2017 1.S | % ald. |
|---|---|---|---|
| Kontratazioa | 407 | 454 | (%10) |
| Salmentak | 943 | 755 | %25 |
| EBITDA marjina | %9,2 | %11,4 | - |
| EBIT marjina | %7,1 | %9,0 | - |
| Emaitza garbia | 18 | 16 | %12 |

| | 2018/06/30 | 2017/12/31 | % ald. |
|---|---|---|---|
| Eskari-zorroa | 5.728 | 6.265 | (%9) |
| Zirkulatzailea | 236 | 247 | (%5) |
| Finantza zor-garbia | 206 | 219 | (%6) |
| Ondarea | 726 | 750 | (%3) |

# Aurkibidea


- Kontratazioa
- Eskarien zorroa
- Emaitza-kontu bateratua
- Egoera-balantze bateratua
- Eragiketa korporatiboak
- Burtsako informazioa
- Aurreikuspenak
- Eranskinak




# Kontratazioa

## Kontratuak Europan
CAFengan konfiantza berritu duten bezeroekin

*(milioi eurotan)*

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018[1] | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1.HH-4.HH | 1.HH-4.HH | 1.HH-4.HH | 1.HH | 1.HH-2.HH |
| Kontratazioa | 902 | 2.677 | 1.514 | 143 | 407[2] |

Honako hauek izan dira 2018ko bigarren hiruhilekoan sinatutako kontratu nagusiak (eskarien zorroan sartuta daude):


Bartzelona (Espainia)


Lund (Suedia)


Luxemburg


Friburgo (Alemania)

Kontratu horiek urteko lehen hiruhilekoan iragarri genituenei gehitu behar dizkiegu eta gehienak aurreko kontratuen luzapenak edo CAFek aurretik ezagutzen zituen bezeroekin adostutako proiektu berriak dira.

Zifra horri beste negozio batzuetatik jasotako zenbateko handiak gehitu behar zaizkio: zerbitzuak, MiiRA eta beste negozio-lerro batzuk. Horien artean, nabarmendu beharrekoa da autobus hibrido eta elektrikoak Vectiari, eta trakzio-bihurgailuak CAF Power&Automationi kontratatu izana. Horrez gain, abian dauden proiektuetan egindako doiketak ere sartuta daude (plusbalioak, minusbalioak eta bihurketako doiketak batez ere).



[1] Honela lortutako kontratazioa: (Aldi amaierako zorroa – Aldi hasierako zorroa + Aldiko salmentak). Kontratuaren sinadura hartu dugu eskarien zorroan aitortzeko irizpide gisa.

[2] Zifra horrek ez ditu jasotzen kontratatutako proiektu batzuek jasotzen dituzten aukera gehigarriak.

# Eskarien zorroa

Zorro txikiago horrek produkzio-programak bete egin direla islatzen du,
eta ez ditu jasotzen sinatzeke dauden proiektuetako 1.000 milioi euro baino gehiagoak




2018ko ekainaren 30ean, **eskarien zorroa** 5.728 milioi eurokoa da; hau da, 2017ko salmentekiko, 3,9x-koa izan da.

Zorro horren multzo nagusia nazioarteari atxikita dago eta 50 herrialde baino gehiagotan banatzen da.

Gainera, CAFek 1.000 milioi euro baino gehiagoko bolumena du **oraindik sinatu gabe dauden esleipenetan** edo CAF **lehentasunezko hornitzailea** denetan. Proiektu hauek dira horiek:

- Amsterdamerako metroak (Herbehereak)
- Oslorako tranbiak (Norvegia)
- DMUak Wales & Borders (UK) frankiziarako. CAF lehentasunezko hornitzailea da

[1] 2018ko hiruhileko bakoitzeko Zorroa / Salmentak ratioa, 2017ko urteko salmenta-zifraren arabera kalkulatuta.

# Emaitza-kontu bateratua

Hazkunde-erritmoa biziagotu egin da, bereziki Ibilgailuen Negozioan

**Negozio Zifraren Zenbateko Garbia** Bilakaera

*(milioi eurotan)*




**Negozio Zifraren Zenbateko Garbia** Segmentuen arabera banakapena

*(salmentekiko %)*




Ibilgailuen fabrikazioko proiektuei lotutako eskari-zorro altuak bizkortu egin ditu negozio horren salmentak eta mix-ean duen proportzioa.

[1] Trakzio- eta kontrol-ekipoen, komunikazio-sistemen, seinaleztapen-sistemen, integrazioko ingeniaritzaren, EPCren eta abarren negozioak biltzen ditu.

[2] Errodajeen eta Osagaien negozioa MiiRA markaren bidez merkaturatzen da.

# Emaitza-kontu bateratua

Handitu egin da zerga aurreko irabazia,
baina irabazi garbiarekin ezin daiteke gauza bera gertatu aplikagarria den foro-arau berria dela eta

*(milioi eurotan)*

| | 2018 1.S | 2017 1.S | Ald. % |
|---|---|---|---|
| Negozio-zifraren zenbateko garbia | 943 | 755 | %25 |
| EBITDA | 87 | 86 | %1 |
| Ibilgetuaren amortizazioa eta zuzkidurak | (20) | (19) | %5 |
| EBIT | 67 | 68 | (%1) |
| Finantza-emaitza | (30) | (43) | (%30) |
| Zergen aurreko emaitza | 36 | 25 | %46 |
| Irabazien gaineko zerga | (19) | (9) | %107 |
| Zergen ondorengo emaitza garbia | 18 | 16 | %12 |

Urtearen lehen sei hilabeteetan jarduera handitu eta finantza-emaitza hobetu izanaren ondorioz, zergen aurreko irabazia % 46 igo da.

Irabazien gaineko Zerga handitu egin da Taldeak egoitza fiskala duen lurraldean onartutako Sozietateen gaineko Zergaren foru-arau berriak izandako eragina dela eta. Aplikagarria den zerga-esparrua aldatu izanak kontularitzako aldi baterako doiketa eragin du, baina horrek ez du eraginik izan kutxan eta dibidenduetan.

# Egoera-balantze bateratua > Kapital zirkulatzailea

Egonkortasuna kapital zirkulatzailean
jarduera nabarmen igo deneko testuinguruan (% +25)

## KAPITAL ZIRKULATZAILEA

*(milioi eurotan)*







2017. urtearen amaieran kontratatutako proiektuei eta abian dauden proiektu ugariri lotutako kobrantzei esker, enpresaren zirkulatzailea mantendu eta zertxobait hobetu da jarduera nabarmen igo den testuinguruan.

[1] Balantzeko kontu-sail hauek biltzen ditu:
- "Beste zordun batzuk": Beste zordun batzuk, zerga korrontearekin lotutako aktiboak, aktibo korrontetik eratorritakoak eta beste aktibo korronte batzuk.
- "Beste hartzekodun batzuk": Hornidura korronteak, bezeroen aurrerakinik gabeko beste hartzekodun batzuk, zerga korronteengatiko pasiboak eta pasibo korrontetik eratorritakoak.

# Egoera-balantze bateratua
# > Finantza-posizioa

Enpresaren likidezia hobetu
eta bere finantza-sendotasuna mantendu egin da

## Finantza arloko Zor Gordina

*(milioi eurotan)*

| | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 18eko Ek |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakideen zor gordina | 239 | 492 | 446 | 421 | 346 | 364 | 283 | 252 |
| Zor gordin korporatiboa | 9 | 101 | 268 | 429 | 531 | 403 | 406 | 479 |
| GUZTIRA | 248 | 593 | 714 | 850 | 877 | 767 | 689 | 731 |

Finantza-zor gordina 42 milioi eurotan handitu da urteko lehen seihilekoan eta, horrenbestez, enpresaren likidezia hobetu egin da.

Finantza-zor gordinean dibisaren bihurketak duen eraginak zorra 16 milioi eurotan txikiagotu du eta batez ere Brasilgo emakidari lotuta dago.

## Altxortegia eta finantza arloko inbertsioak[1]

*(milioi eurotan)*

| | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 18eko Ek |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 300 | 208 | 202 | 306 | 399 | 502 | 470 | 525 |

Enpresaren likidezia handitu egin da.

[1] Ikusi banakapena 2018ko ekaineko Laburpen Memoria Bateratuko 10 c) oharrean

## Finantza Arloko Zor Garbia [3]




Finantza Zor Garbia gutxitu egin da eta emakidak hasi zirenetik maila baxuenean kokatu da FZG/EBITDA ratioa.

[2] PPP-5000 Brasilen eta Mexikoko L12n
[3] Azken 12 hilabeteotako EBITDA oinarritzat hartuta 2018ko ekainean kalkulatutako FZG/EBITDA ratioa

# Egoera-balantze bateratua > Finantza-zor garbia

Enpresaren likidezia hobetu
eta bere finantza-sendotasuna mantendu egin da

## Finantza Zor Garbia (Net Debt Bridge)

*(en millones de euros)*



# Eragiketa korporatiboak
# > Solaris

2018ko uzt. – CAF-ek akordioa adostu du autobus hibrido eta elektrikoak fabrikatzen dituen Poloniako Solaris enpresa erosteko. Honen bidez, CAF Taldea hiriko mugikortasun jasangarriko sistemetan Europa mailako lidergoa lortzen du.

SOLARIS



Prozesuaren egoera:

- ✓ Lehia arloko Agintaritzen onartzea hasita
- ✓ Eragiketa ixtea 2018ko irailerako

**Informazio orokorra**

- Solaris Bus & Coach SA
- 1996an sortutako enpresa
- Produkzio-lantegiak Polonian

**Zenbaki batzuk (2017)**

- 1.387 autobus
- 2.319 langile
- 444 M€-ko salmentak

**Teknologia / Produktua**

- Irtenbideen gama osoa: arrunta, hibridoa eta elektrikoa
- Hiriko segmentuan espezializazioa
- Europa mailan aitzindaria e-mobility irtenbideetan
- Kargako askotariko irtenbideak

**Merkatua / Bezeroak**

- Esperientzia 700 bezero ingururekin
- > unitateen % 60 nazioarteko bezeroei salduta
- Merkatu nagusiak: Alemania eta Polonia

# Eragiketa korporatiboak
# > Solaris

*(jarraipena)*

## Solarisek merkatu osoko e-mobility irtenbideen gama zabalena eskaintzen du

### Arrunta

| DIESELA ETA GNC | | |
|---|---|---|
| **Urbino** *(Diesela)* |  | Hiriko diesel-autobusa *Askotariko luzerak* |
| **InterUrbino** |  | Hiriarteko diesel-autobusa *Askotariko luzerak* |
| **Urbino CNG** |  | CNG hiriko autobusa *Askotariko luzerak* |

- Gama kontsolidatuta, 14.000 erreferentzia baino gehiagorekin

### E-mobility

| E-MOBILITY PRODUKTUAK | | |
|---|---|---|
| **Urbino Electric** |  | Zero igorpeneko hiriko autobusa *Askotariko luzerak* |
| **Urbino Hybrid** |  | Hiriko autobús hibridoa *Askotariko luzerak* |
| **Trollino** *2001* |  | Zero igorpeneko trolebusa *Askotariko luzerak* |

- Lehen autobus elektrikoa 2011n merkaturatu zuten
- Gutxi gorabehera, 2.000 unitate salduta

| KARGAKO TEKNOLOGIAK | | |
|---|---|---|
| **Entxufagarria** |  | Nurenberg<br>Paris<br>Varsovia |
| **Indukzioa** |  | Brunswick<br>Berlin<br>Braunschweig |
| **Pantagrafoa** |  | Rzeszów<br>Oslo<br>Hannover |
| **Erregai-pila** |  | Hanburgo<br>Riga<br>Bergamo |

- e-mobility gama irtenbide posible guztiekin (hibridoak, trolebusak, bateria eta erregai-pila), lehiakideekiko oso gainetik

### Zerbitzuak

| SALMENTA OSTEKO ZERBITZUAK |
|---|
| **Mantentzea** |
| **Ordezko piezak** |

- Potentzial handia, e-mobility-ari lotutako zerbitzuek eskari handiagoa izateko dagoen aurreikuspena dela eta

# Eragiketa korporatiboak > Solaris

*(continuación)*

## Posizionamendu bikaina hazten ari den merkatuaren aukerak aprobetxatzeko

### Autobus elektrikoen Europako eskaria




*Autobus kopurua. Gutxi gorabeherako kopuruak*
*Fuente: Solaris Bus & Coach S.A., The World Bus & Coach Manufacturing Industry Report 2016, VDA Bus Report 2017*

## Solarisek hazkunde-aukerak sortzen ditu CAFen negozio nagusietan (core), eta gehiago haziko da CAF Taldeko kide izanda

***CAF Taldearen 2020ko Plan Estrategikoa***

**1 Hazkunde handiagoa ibilgailuetan**

- Solarisek Erdialdeko eta Ekialdeko Europako hiri-segmentuan duen lidergoak aukera berriak eskainiko dizkio Ibilgailuen negozioari
- Cross-selling aukera: Solarisen produktuen eskaintza CAFek gaur egun duen bezeroen baseari, eta CAFen hiri-produktuena (tranbiak eta LRVak) Solarisen bezeroen baseari.

**2 Zerbitzu-negozioa sendotzea**

- Aukera handiagoa zerbitzuen negozioa zabaltzeko (mantentzea ta ordezko piezak) hauei esker:
  - E-mobility produktuei lotutako zerbitzuen eskaria handitzearekin lotutako aurreikuspena
  - Laguntza CAFen Rail Servicesen negozioaren know-howan

**3 Beste negozio batzuen hazkundea**

- Bultzada hiriko autobusen negozioaren hazkundeari CAF Taldearen bidez hauei esker:
  - CAF Turnkey&Engineering-ren giltza eskurako proiektuen eta kargako azpiegiturako irtenbideen teknologia eta diseinu arloetako gaitasuna eta CAF Power&Automation-en trakzio-kateko eta energia-pilaketako teknologia
  - CAFen know-how a finantzaketa-jarduereetan
- Hazkunde gehigarrirako aukera propultsio-sistemen eta kargako irtenbideen negozioan

# Eragiketa korporatiboak
# > Orbital

2018ko uzt. – CAFek partaidetza eskuratu du Orbital Critical Systems-en, sistema kritikoetako irtenbideak hornitzen dituen enpresan. Horrek CAFentzat funtsezkoak diren arloetako gaitasun teknikoak sendotuko ditu eta balio erantsi handiko sektoreetarako sarbidea emango dio

ORBITAL CRITICAL SYSTEMS

## Sistema kritikoak

TIER 1 hornitzailea

- Sistema kritikoen software eta hardware irtenbideak eta horiei lotutako entsegu-bankuak.
- Sektore hauetarako besteak beste: aeronautika, espazioa eta trenak.
- Erreferentzia sendoa hauetan: Airbus, Airbus Defense eta CAF
- Ingeniaritzako gaitasun handia I+G arloko inbertsio handiarekin
- Bezero nagusiengandik gertu Noainen, Madrilen eta Ulm-en (Alemania)

## CAFen aplikatzen direnak

Seinaleztapeneko sistema kritikoak

- CAF Signalling-en gaitasunak indartzea. Aeronautikako jardunbide egokiak aplikatzea.
- ERTMSren probetako eta balioztatzeko estrategiak soiltzea.

Tren arloko sistema kritiko berriak

- Laguntza CAF I+D eta CAF P&A enpresei sistema berriak garatzen eta lehendik daudenak araudi mailako esparru berrietara egokitzen.









# Burtsako informazioa

Base 100= 02/01/2018




| Akziodunen egitura | 2017/12/31 |
|---|---|




Iturria: 2017. urteko CAF Taldeko kontu beratuak

[1] Kutxa Fundazioaren partehartzea du barne

[2] % 3 baino gehiagoko partaidetza edo, paradisu fiskaletan egoitza duten inbertsiogileen kasuan, % 1eko partaidetza duten inbertsiogileak biltzen ditu

| Burtsako informazioa | 2018 *(06/30 arte)* |
|---|---|
| Burtsako kapitalizazioa itxieran (euro) | 1.408.938.825 |
| Akzio kopurua | 34.280.750 |
| Kotizazioko azken prezioa (euro) | 41,1 |
| Kotizazioko gehieneko prezioa (euro) | 43,6 |
| Kotizazioko gutxieneko prezioa (euro) | 33,7 |
| Bolumen negoziatua (balio kopurua) | 5.975 |
| Diru negoziatua (euro) | 235.554 |

Iturria: BME

# Aurreikuspenak

## HAZKUNDEA

Enpresaren aldeok aurreikuspenak mantendu dira:

- 2018an negozio-zifraren bi digituko hazkundea mantentzea
- Hurrengo ekitaldiei dagokienez, irabazian goranzko joera honako hauei esker:
  - a) Jardueraren igoera eta, batez ere, Europako fabrikazio-lantegietan
  - b) Kontratazio-marjina historikoekin lerrokatuta dago
  - c) Eskarien zorroan gauzatze-arrisku txikiagoa dago
  - d) Lanen bikaintasuna eta eragingarritasuneko programak:
    - Hobekuntza fabrikazioaren eta industrializazioaren hobekuntzan
    - Optimizazioa hornitzaileen lanean kalitateari eta entregei dagokienez
    - Globalizazioa erosketetan eta kudeaketaren hobekuntza
    - Inbentarioaren kudeaketa eragingarria
    - Prozesuen digitalizazioa
- Gaur egungo eskarien zorro historikoari eusteko helburua. Horren guztiaren oinarria 6.000 milioi euro baino gehiagoko eskaintza irekien bolumen egonkorra da
- 2020ko lerro estrategikoak abian: hazkunde-plana negozio guztietan





# ERANSKINAK

Emaitza-kontu bateratua

Egoera-balantze bateratua

2018ko 2. hiruhilekoan kontratatutako eta esleitutako proiektuak

# Emaitza-kontu bateratua

*(milioi eurotan)*

| Galera eta Irabazien Kontu Bateratuak | 2018 1.S | 2017 1.S | % ald. |
|---|---|---|---|
| Negozio-zifraren zenbateko garbia | 943 | 755 | %25 |
| Beste sarrera batzuk(*) | 9 | 7 | %29 |
| Hornidurak eta izakinen arteko aldaketa | (469) | (341) | %38 |
| Pertsonaleko gastuak | (260) | (230) | %13 |
| Ustiapeneko beste gastu batzuk | (135) | (105) | %28 |
| EBITDA | 87 | 86 | %1 |
| % marjina | 9,2% | 11,4% | |
| Ibilgetuaren amortizazioak | (20) | (19) | %5 |
| Besterentzearen ondoriozko okerragotzea eta eragina | 0 | (0) | %0 |
| EBIT | 67 | 68 | (%1) |
| % marjina | 7,1% | 9,0% | |
| Finantza arloko sarrerak | 4 | 4 | (%6) |
| Finantza arloko gastuak | (31) | (35) | (%12) |
| Trukeko aldeak | (3) | (12) | (%77) |
| Finantza arloko beste gastu/sarrerak (**) | (0) | 0 | %0 |
| Finantza arloko emaitza | (30) | (43) | (%31) |
| Partaidetza-metodoaren bidez baloratutako erakundeen emaitza | (1) | 0 | (%100) |
| Zergen aurreko emaitza | 36 | 25 | %46 |
| Irabazien gaineko zerga | (19) | (9) | %107 |
| Ekitaldiko emaitza garbia | 18 | 16 | %12 |
| % marjina | %1,9 | %2,1 | |

(*) "Ustiapeneko beste sarrera batzuk" eta "empresak bere aktiborako egindako lana" sailak barne ditu

(**) "Finantza-tresnak besteretzearen ondoriozko kaltea eta emaitza" eta "Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldaketa" sailak barne ditu

**Negozio-zifraren** zenbateko garbia % 25 handitu da 2017ko lehen seihilekoarekin alderatuta ibilgailuen sailean jarduera industriala handitu izanari esker.

Salmenten % 90 **kanpoko merkatuko** salmentei dagokie.

2018ko ekitaldiko lehen seihilekoan abian egon diren **ibilgailuen proiektu nagusiak** honako hauek izan dira: Holandako NSrentzako aldirietako trenak, Erresuma Batuko Northern eta Transpennine frankizientzako eskualdeko trenak, Bruselarako metro-unitateak eta Mexiko DF eta Toluca arteko linea berrirako aldirietako trenak.

# Emaitza-kontu bateratua

*(milioi eurotan)*

| Galera eta Irabazien Kontu Bateratuak | 2018 1.S | 2017 1.S | % ald. |
|---|---|---|---|
| Negozio-zifraren zenbateko garbia | 943 | 755 | %25 |
| Beste sarrera batzuk(*) | 9 | 7 | %29 |
| Hornidurak eta izakinen arteko aldaketa | (469) | (341) | %38 |
| Pertsonaleko gastuak | (260) | (230) | %13 |
| Ustiapeneko beste gastu batzuk | (135) | (105) | %28 |
| EBITDA | 87 | 86 | %1 |
| % marjina | 9,2% | 11,4% | |
| Ibilgetuaren amortizazioak | (20) | (19) | %5 |
| Besterentzearen ondoriozko okerragotzea eta eragina | 0 | (0) | %0 |
| EBIT | 67 | 68 | (%1) |
| % marjina | 7,1% | 9,0% | |
| Finantza arloko sarrerak | 4 | 4 | (%6) |
| Finantza arloko gastuak | (31) | (35) | (%12) |
| Trukeko aldeak | (3) | (12) | (%77) |
| Finantza arloko beste gastu/sarrerak (**) | (0) | 0 | %0 |
| Finantza arloko emaitza | (30) | (43) | (%31) |
| Partaidetza-metodoaren bidez baloratutako erakundeen emaitza | (1) | 0 | (%100) |
| Zergen aurreko emaitza | 36 | 25 | %46 |
| Irabazien gaineko zerga | (19) | (9) | %107 |
| Ekitaldiko emaitza garbia | 18 | 16 | %12 |
| % marjina | %1,9 | %2,1 | |

(*) "Ustiapeneko beste sarrera batzuk" eta "empresak bere aktiborako egindako lana" sailak barne ditu

(**) "Finantza-tresnak besteretzearen ondoriozko kaltea eta emaitza" eta "Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldaketa" sailak barne ditu

**Pertsonalaren gastua** % 13 igo da; hau da, jardueraren igoeraren azpitik.

**Zergen aurreko Emaitza** % 46 handitu da batez ere kanbio-tasan gertatutako aldaketen inpaktu txikiagoa eta finantza-kostuen hobekuntza direla eta.

**Irabazien gaineko Zergari dagokionez,** nabarmendu beharrekoa da Sozietateen gaineko Zergaren foru-arau berriak izandako eragina dela eta, kontularitzako gastua handiagoa izan dela (ez du eraginik izan, ordea, kutxan eta dibidenduetan).

# Egoera-balantze bateratua

*(milioi eurotan)*

| Egoera Balantzea | 2018/6/30 | 2017/12/31 | % Ald. |
|---|---|---|---|
| **Aktiboa** | | | |
| Ibilgetu ukiezina | 76 | 71 | %8 |
| Ibilgetu materiala | 252 | 245 | %3 |
| Partaidetza- metodoa aplikatuta zenbatutako inbertsioak | 12 | 20 | (%39) |
| Finantza-aktibo ez-korronteak | 543 | 577 | (%6) |
| Zerga geroratuagatiko aktiboak | 137 | 145 | (%6) |
| **Aktibo ez-korrontea** | **1.020** | **1.056** | **(%3)** |
| Izakinak | 53 | 72 | (%26) |
| Salmenten eta zerbitzuen prestazioaren araberako bezeroak | 1.201 | 1.277 | (%6) |
| Beste zordun batzuk | 193 | 198 | (%3) |
| Zerga korronteagatiko aktiboak | 13 | 10 | %30 |
| Beste finantza aktibo-korronte batzuk | 96 | 127 | (%24) |
| Beste aktibo-korronte batzuk | 5 | 3 | %55 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 423 | 372 | %14 |
| **Aktibo-korronteak** | **1.984** | **2.059** | **(%4)** |
| **Aktiboa, guztira** | **3.004** | **3.115** | **(%4)** |
| **Pasiboa eta ondare garbia** | | | |
| Ondare garbia | 734 | 760 | (%3) |
| Pasibo ez korrontea | 7 | 7 | %0 |
| Kreditu-erakundeekiko eta bestelako zor ez-korronteak | 582 | 626 | (%7) |
| Beste zenbait finantza-pasibo ez-korronteak | 55 | 70 | (%22) |
| Zerga geroratuagatiko pasiboak | 149 | 154 | (%3) |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | 59 | 56 | %6 |
| **Pasibo ez-korronteak** | **852** | **913** | **(%7)** |
| Hornidura korronteak | 144 | 228 | (%37) |
| Kreditu-erakundeekiko eta bestelako zor korronteak | 134 | 46 | %190 |
| Beste zenbait finantza-pasibo korronteak | 95 | 93 | %2 |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk | 1.044 | 1.075 | (%3) |
| Beste zenbait pasibo korronte | 1 | 0 | %100 |
| **Pasibo korrontea** | **1.418** | **1.443** | **(%2)** |
| **Pasiboa eta Ondare garbia, guztira** | **3.004** | **3.115** | **(%4)** |

## Ibilgetu materiala

Lehen seihilekoan, ibilgetu materialaren inbertsioa 23 milioi eurokoa izan da eta nabarmendu beharrekoak dira Newporteko (Gales) lantegi berria eraikitzeko abian dauden lanak.

## Finantza-aktibo ez-korronteak

Batez ere, emakida-kontratuei lotutako aktiboak dira. Kontratu horietan, etorkizuneko fluxuak zehaztuta eta bermatuta daude (demanda-arriskurik gabe). BRLtako fluxuak tokiko inflazioari indexatuta daude.

Kontratu horien baitan jasotako kobrantzekin zein dibisaren eraginarekin (batez ere BRLk izandako balio-galera dela eta) lotuta urtean izandako jaitsiera.

## Aktibo korronteak

FINA 15 (NIIF, gaztelaniaz) kontularitzako araua indarrean sartu izanaren ondorioz, zigorrek eta antzekoek eragindako kontratu mailako hornidurak salmenta-prezio txikienekotzat jotzen dira. Hori dela eta, salmenten eta zerbitzu-prestazioen araberako bezeroen saldoa 84 milioi eurotan txikiagotu da hornidura korronteetatik eratorritako intsuldaketaren ondorioz.

# Egoera-balantze bateratua

*(milioi eurotan)*

| Egoera Balantzea | 2018/6/30 | 2017/12/31 | % Ald. |
|---|---|---|---|
| Aktiboa | | | |
| Ibilgetu ukiezina | 76 | 71 | %8 |
| Ibilgetu materiala | 252 | 245 | %3 |
| Partaidetza- metodoa aplikatuta zenbatutako inbertsioak | 12 | 20 | (%39) |
| Finantza-aktibo ez-korronteak | 543 | 577 | (%6) |
| Zerga geroratuagatiko aktiboak | 137 | 145 | (%6) |
| Aktibo ez-korrontea | 1.020 | 1.056 | (%3) |
| Izakinak | 53 | 72 | (%26) |
| Salmenten eta zerbitzuen prestazioaren araberako bezeroak | 1.201 | 1.277 | (%6) |
| Beste zordun batzuk | 193 | 198 | (%3) |
| Zerga korronteagatiko aktiboak | 13 | 10 | %30 |
| Beste finantza aktibo-korronte batzuk | 96 | 127 | (%24) |
| Beste aktibo-korronte batzuk | 5 | 3 | %55 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 423 | 372 | %14 |
| Aktibo-korronteak | 1.984 | 2.059 | (%4) |
| Aktiboa, guztira | 3.004 | 3.115 | (%4) |
| Pasiboa eta ondare garbia | | | |
| Ondare garbia | 734 | 760 | (%3) |
| Pasibo ez korrontea | 7 | 7 | %0 |
| Kreditu-erakundeekiko eta bestelako zor ez-korronteak | 582 | 626 | (%7) |
| Beste zenbait finantza-pasibo ez-korronteak | 55 | 70 | (%22) |
| Zerga geroratuagatiko pasiboak | 149 | 154 | (%3) |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | 59 | 56 | %6 |
| Pasibo ez-korronteak | 852 | 913 | (%7) |
| Hornidura korronteak | 144 | 228 | (%37) |
| Kreditu-erakundeekiko eta bestelako zor korronteak | 134 | 46 | %190 |
| Beste zenbait finantza-pasibo korronteak | 95 | 93 | %2 |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk | 1.044 | 1.075 | (%3) |
| Beste zenbait pasibo korronte | 1 | 0 | %100 |
| Pasibo korrontea | 1.418 | 1.443 | (%2) |
| Pasiboa eta Ondare garbia, guztira | 3.004 | 3.115 | (%4) |

## Ondare garbia

Sortutako emaitzak, dibisaren eragina eta aurreko Batzar Orokorrean onartutako dibidenduen banaketa izan dira ondarearen mugimendu nagusiak.




## Pasibo ez-korrontea

**Kreditu-erakundeekiko zor ez-korronteak eta obligazioak:** zor gordinaren bolumena gutxitu egin da epe laburrerako intsuldaketaren eta BRLaren debaluazioaren ondorioz.

# Egoera-balantze bateratua

*(milioi eurotan)*

| Egoera Balantzea | 2018/6/30 | 2017/12/31 | % Ald. |
|---|---|---|---|
| Aktiboa | | | |
| Ibilgetu ukiezina | 76 | 71 | %8 |
| Ibilgetu materiala | 252 | 245 | %3 |
| Partaidetza- metodoa aplikatuta zenbatutako inbertsioak | 12 | 20 | (%39) |
| Finantza-aktibo ez-korronteak | 543 | 577 | (%6) |
| Zerga geroratuagatiko aktiboak | 137 | 145 | (%6) |
| Aktibo ez-korrontea | 1.020 | 1.056 | (%3) |
| Izakinak | 53 | 72 | (%26) |
| Salmenten eta zerbitzuen prestazioaren araberako bezeroak | 1.201 | 1.277 | (%6) |
| Beste zordun batzuk | 193 | 198 | (%3) |
| Zerga korronteagatiko aktiboak | 13 | 10 | %30 |
| Beste finantza aktibo-korronte batzuk | 96 | 127 | (%24) |
| Beste aktibo-korronte batzuk | 5 | 3 | %55 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 423 | 372 | %14 |
| Aktibo-korronteak | 1.984 | 2.059 | (%4) |
| Aktiboa, guztira | 3.004 | 3.115 | (%4) |
| Pasiboa eta ondare garbia | | | |
| Ondare garbia | 734 | 760 | (%3) |
| Pasibo ez korrontea | 7 | 7 | %0 |
| Kreditu-erakundeekiko eta bestelako zor ez-korronteak | 582 | 626 | (%7) |
| Beste zenbait finantza-pasibo ez-korronteak | 55 | 70 | (%22) |
| Zerga geroratuagatiko pasiboak | 149 | 154 | (%3) |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | 59 | 56 | %6 |
| Pasibo ez-korronteak | 852 | 913 | (%7) |
| Hornidura korronteak | 144 | 228 | (%37) |
| Kreditu-erakundeekiko eta bestelako zor korronteak | 134 | 46 | %190 |
| Beste zenbait finantza-pasibo korronteak | 95 | 93 | %2 |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk | 1.044 | 1.075 | (%3) |
| Beste zenbait pasibo korronte | 1 | 0 | %100 |
| Pasibo korrontea | 1.418 | 1.443 | (%2) |
| Pasiboa eta Ondare garbia, guztira | 3.004 | 3.115 | (%4) |

## Pasibo korrontea

**Hornidura korronteak** gutxitu egin dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta FINA 15 arauaren ondorioz. Izan ere, **salmenten eta zerbitzu-prestazioen araberako bezeroak** kontu-saila txikiagotu egin du (84 milioi euro).

**Kreditu-erakundeekiko zor korronteak eta obligazioak** handitu egin dira 2017ko abenduaren 31ko datuekin alderatuta batez ere honako hauek direla eta: paper komertzialean egindako jaulkipenak eta aurreko ekitaldietan kontratutako epe luzeko zorra epe laburreko zor gisa berriro sailkatu izana.




**Hartzekodun komertzialek eta ordaindu beharreko beste kontu batzuek** 2017ko ekitaldiaren amaierako egoera berean jarraitzen dute. Langileekiko pasiboen eta hornitzaileen saldoa handitu da eta bezeroen aurrerakinek izandako jaitsiera konpentsatu du horrek.

# Kontratazioa eta esleipenak

## Friburgo (Alemania) – *Kontratatua eta zorroan*

Friburgo hiriak tranbia-unitate berriak hornitzeko kontratua sinatu du CAFekin. Aurretik hornitutako eta zerbitzu komertzialean dauden 12 URBOS tranbiako flotara gehituko dituzte.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak:

- 7 kotxeko 5 unitateren hornidura
- Gainera, kontratuak beste 7 unitatearen aukera jasotzen du



## Lund (Suedia) – *Kontratatua eta zorroan*

Suediako hegoaldean dagoen Skåne eskualdeko garraio-operadoreak, Skånetrafiken-ek, Lund hirirako URBOS familiako tranbia-unitate berriak hornitzeko kontratua sinatu du CAFekin.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak:

- 5 kotxeko 7 unitateren hornidura
- Unitateen mantentze-lana 10 urtez
- Gainera, kontratuak unitateak gehitzeko aukera jasotzen du



# Kontratazioa eta esleipenak

*(jarraipena)*

## Luxemburg – *Kontratatua eta zorroan*

Luxtram operadoreak CAFekin sinatu du dagoeneko zerbitzuan dauden 21 unitateen antzekoak diren URBOS familiako tranbia-unitate berrien hornidura. Unitate horiek ere superkondentsadoreen energia-metagailuen eta geltokietan zorutik karga modu bizkorrean jasotzeko teknologia dute barneratuta, gaur egun zerbitzuan daudenek bezalaxe.



Honako hauek biltzen ditu proiektuak:

- 5 kotxeko 12 unitateren hornidura.

## Amsterdam (Holanda) - *Esleituta, baina oraindik sinatu gabe*

Amsterdameko garraio-publikoko operadoreak (GVB Activa B.V.) CAFi esleitu dio hiriko sarerako metro-unitateen hornikuntza. Unitate berriak gidaririk gabe modu automatikoan operatzeko prest egongo dira eta aurretik CAFek hornitutako 37 unitateei gehituko zaizkie. Kontratua ez da jaso 2018ko lehen seihilekoaren itxierako eskarien-zorroaren zifran.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak:

- 3 kotxeko 30 unitateren hornidura.
- Gainera, kontratuak beste 30 unitate kontratatzeko eta kotxe kopurua unitate bakoitzeko 6 kotxera arte handitzeko aukera jasotzen du.

# Kontratazioa eta esleipenak

*(jarraipena)*

## Wales & Borders (Erresuma Batua) – *Lehentasunezko hornitzailea*

Ekainaren 8an, KeolisAmey-k CAF hautatu zuen Wales & Borders frankiziaren bidez operatuko duten diesel-unitateak hornitzeko lehentasunezko hornitzaile gisa. Unitateak Civity UK plataforman oinarrituta daude eta amaierako muntaketa CAFek Celtic Business Park, Newport-en (hegoaldeko Gales), dituen instalazio berrietan egingo da.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak:

- 2 kotxeko 51 unitateren hornidura.
- 3 kotxeko 26 unitateren hornidura.
- Frankiziaren amaierara arte (2033an) unitateen mantentze-lana.



## Oslo (Norvegia) – *Esleituta, baina oraindik sinatu gabe*

Norvegiako hiriburuko hiri-garraioko operadore publikoak, Sporveien-ek, CAFi esleitu dio Oslo hirirako URBOS familiako tranbia-unitate berrien hornikuntza.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak:

- 5 kotxeko 87 unitateren hornidura.
- Gainera, kontratuak beste 60 unitatearen aukera ere jasotzen du.



# Lege-oharra

Dokumentu hau berariaz informazioa emateko sortu da.

Dokumentu honetan jasotako informazioa ez dute egiaztatu hirugarren independenteek; beraz, ez dago berariaz edo inplizituki inolako bermerik bertan jasotako informazio, iritzi edo adierazpenen inpartzialtasunaren, zehaztasunaren, osotasunaren edo zuzentasunaren inguruan.

Dokumentu honetan, gerora begirako aurreikuspen eta zenbatespenei buruzko adierazpenak jaso daitezke, baina ez dira etorkizuneko errendimenduaren edo emaitzen bermetzat jo behar; izan ere, arriskuak eta zalantzak egon daitezke tartean, eta horietako asko ez daude CAFen kontrolpean. Beraz, baliteke emaitza errealak zeharo ezberdinak izatea adierazitakoekin edo aurreikuspen eta zenbatespen horietan era inplizituan jasotakoekin alderatuta.

Horrenbestez, ez dira inola ere interpretatu behar CAFen akzioak erosteko, saltzeko edo horietan parte hartzeko aholku edo gomendio gisa. Era berean, helburua ez da edozein produktu edo zerbitzu finantzario eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua sinatu den egunean eman dira, eta aurretiaz ohartarazi gabe egiaztatu, amaitu eta aldatu behar dira. CAFek ez du bere gain hartzen zenbatespen eta aurreikuspen horiek jendaurrean eguneratzeko edo aztertzeko betebeharra, bai informazio berria dagoenean, bai etorkizuneko beste ekitaldi batzuetan, edota beste egoera batzuetan.

Hirugarren batek dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hartutako edozein erabaki berariaz eta bakarrik haren erantzukizuna izango da. Hala, ez CAF, ez bere filialak, ez arduradunak ez dira izango sor daitezkeen kalteen erantzule. Halaber, ez dute inolako erantzukizunik hartuko dokumentu honen edo bere edukiaren erabilerarekin lotuta.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira, eta ezin izango da kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (guztiz edo zati batean), baldin eta CAFek aurretiaz idatziz adostasuna ematen ez badu.